


OSATU KOOP. S.:


ERMUA KARDIO-BABESTUA: gizartea eraldatuz, elkarrekin bizitza gehiago salba ditzagun

Bexen cardio

Oxel Etxebarria Etxagibel
oxel@bexencardio.com
673834781

<https://www.bexencardio.com/es/cardio-proteccion-ermua/>

 **Jarduera:** Desfibrilagailuak diseinatu, ekoitzi eta saltzen duen estatuko enpresa bakarra gara, osasun profesionaleri ekipo konplexuak eskeiniz. Trantsizio baten ondorioz, Gizarte osoarentzako produktu eta zerbitzuak ere eskeintzen ditugu, kardio-babesaren kultura zabaltzeko asmoz.

 **Sektorea:** Medikuntzaren esparruko gailuen ekoizpena (desfibrilagailuak)

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 40

 **Lokalizazioa:** Subida Areitio, 5, 48260 , Ermua, Bizkaia

Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Produktua berritzeko ekimen publiko-pribatua da, Ermua udalerrian ekosistema bat sortzeko, geldialdi kardiorrespiratorio bat gertatzen bada biziraute-katea bermatze aldera. Ekimena aitzindaria da hala tokian eta estatuan nola European, eta erabilera ez-profesionalerako desfibrilagailu-mota intuitibo eta adimentsu batean oinarritutako berrikuntza teknologikoa eta konpromiso sozial handia konbinatzen ditu; horretarako, geldialdi kardiorrespiratorio bat kudeatzeko prestakuntza jaso duten 200 pertsona boluntariok osatutako sarearen partaidetza baliatzen da.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Bexen cardio da nazioartean presentzia zabala duen desfibrilagailu-ekoizle nazional bakarra: bere salmenten % 80tik gora egiten dira nazioarteko merkatuetan. Enpresak Ermuan du egoitza, Mondragon taldean dago integratuta eta medikuntzaren esparruko irtenbideak diseinatzen, ekoizten eta merkaturatzen ditu.

EAEEn, larrialdi-zerbitzuek urtean 840 bat geldialdi kardiorrespiratorio artatzen dituzte ospitaletatik kanpo, eta haietatik % 10 bakarrik irteten dira bizirik. Egoera horri aurre egiteko eta Ermuko Udalarekin lankidetzan estuan, Bexen cardiok «Ermua, hiri kardio-babestua» proiektua sortu du: kardio-babeserako lehenengo programa da, biziraute-kateko katebegi guztiek beren zeregina betetzean oinarritua eta teknologia eta herritarren partaidetza ardatz dituena.

Proiektuaren esparruan (2021eko apiriletik ekainera bitartean egin zen), Ermuko 200 pertsona boluntarioren sarea sortu da, eta horiei ad hoc prestakuntza eman zaie aurrez aurre eta formatu birtualean (online prestakuntzako plataforma baten bidez), geldialdi kardiorrespiratorio baten aurrean nola jardun eta kanpoaldeko desfibrilagailu automatizatuak (KDAk) nola erabili jakin dezaten. Gainera, Bexen cardiok 10 desfibrilagailu berri instalatu ditu Ermuko hirigunean: alde zuzenetik zeuden 12ei gehitu zaizkie. Desfibrilagailu berri horiek erabilera publikokoak dira, egunean 24 orduz daude erabilgarri eta erabilerrazak eta intuitiboak dira. Gainera, sortutako teknologiari esker, desfibrilagailu berriek bermatu egiten dute pauso guztiak zuzen ematen direla, erreskatatzaileentzako ohartarazpenak sortzen dituzte denbora errealean eta, IoTi esker, softwarea eguneratzeko eta prebentzioko mantentze-lanak egiteko alertak igortzeko aukera dute.

Baliatutako baliabideen ikuspegitik, proiektuak 60.000 euroko kostua izan du, eta zenbait euskal erakunderen lankidetzan eskatu du: Ermuko Udala, Bexen cardio, Gurutze Gorria eta Teknodidaktika (boluntarioen prestakuntzaren arduradunak), Ludus (prestakuntzan baliatutako errealtate birtualeko betaurrekoen sortzailea) edo Diara (desfibrilagailua eta negozio-eredua diseinatzearen arduraduna). Hala, proiektua "0 kilometroa" logikari jarraituz sortu da, zenbait euskal enpresa eta erakundetan dauden baliabideak eta ezagutza baliatuz.

Proiektuak aukera eman du Ermua edozein arazo kardiorrespiratorio erantzuteko leku prestatu bihurtzeko; halaber, gai da geldialdi kardiorrespiratorioa gertatzen denean bizirauteko katea bermatzeko hiru ardatzak ziurtatzeko; hots, erantzun lasterra, desfibrilagailu irigarria eta operatiboa, eta, azkenik, bihotz-biriketako erreanimazio-maniobra egiten eta desfibrilagailuak erabiltzen dakiten pertsonak.

Aurrekariak

EAEEn, larrialdi-zerbitzuek urtean 840 bat geldialdi kardiorrespiratorio artatzen dituzte ospitaletatik kanpo. Haietatik % 10 bakarrik irteten dira bizirik. Egoera horri aurre egiteko eta Ermuko Udalaren laguntzaz, Bexen cardiok proiektu hau sortu du. Zehazki, desfibrilagailu-mota berri baten sorreran oinarritutako berrikuntza teknologikoa eta konpromiso sozial handia konbinatzen ditu, eta horretarako, geldialdi kardiorrespiratorio bat kudeatzeko prestakuntza duten 200 pertsona boluntarioren sarearen partaidetza du.

Erronka

Proiektuaren erronka nagusia da, hain zuzen, Ermua prestatzea eta azpiegitura egokiz hornitzea, sortzen den edozein gorabehera kardiorrespiratorio erantzuteko, hala murrizte aldera istripu kardiorrespiratorioen eragindako ezbeharren kopurua. Horretarako, lankidetzan publiko-pribatuko proiektuak herritarrek eta udalerriko elkarte-sarea hartu ditu oinarri.

Ekintzak

1. Proiektuari buruzko komunikazio-kanpaina egitea Ermuko bizilagun guztientzat, udalerrian ezagun askoak diren pertsonen doako partaidetzan oinarrituta.
2. 200 boluntario «erreskatatzaile»ren sarea sortzea: aurrez aurreko prestakuntza eta prestakuntza birtuala jaso dute, geldialdi kardiorrespiratorio bat nola kudeatu ikasteko, egun dauden tresnen erabilera barne. Pertsona horiek sarbidea dute online plataforma batera, ikasitakoak eguneratzeko eta freskatzeko.
3. Bexen cardioren 10 desfibrilagailu berriren (R100 modelo) garapen propioa eta instalazioa kalean. Desfibrilagailu intuitiboa eta adimentsua da, egunean 24 orduz dago eskuragarri eta ez-profesionalek erabili dezakete: bere teknologiari esker, bermatu egiten du ematen diren pauso guztiak zuzen ematen direla, denbora errealean igortzen dizkio ohartarazpenak erreskatatzaileen sareko kideei eta,

azkenik, softwarea eguneratzeko eta prebentzioko mantentze-lanak egitea ahalbidetzen du, IoT-i esker.

4. Alerta bizkorreko App bat sortzea, "erreskatatzaileen" sarea mugiarazteko.

5. Azkenik, 2021eko ekainaren 19an «Bihotz Eguna» egin zen: sentsibilizazio-jardunaldia izan zen, proiektuari azkena emateko. Halaber, 200 pertsona «erreskatatzaile»ren sarea aktibatzekeo baliagarri izan zen. Etorkezunera begira, proiektua Euskadiko Larrialdi Sarean integratzeko lanean ari dira, proiektua 112ko zerbitzuekin eta Osakidetzarekin koordinatzeko. Gainera, esperientzia beste udalerrri batzuetara eramateko ahaleginak egiten ari dira.

Lortutako emaitzak

- Proiektuak bide eman du Ermua edozein arazo kardiorrespiratoriori erantzuteko leku prestatu bihurtzeko; hala, istripu kardiorrespiratorioek gizartearen izan ditzaketen eragin negatiboak minimizatzen dira.
- Beraz, proiektuak 200 pertsona boluntario «erreskatatzaile»ren sare bat sortzea ekarri du: prestakuntza dute geldialdi kardiorrespiratorioaren kudeaketaz, bai eta egun dauden 10 tresna berrien erabileraz ere. Kopuru horrek gaitasun egiten ditu hasierako aurreikuspenak: 150 boluntario lortu nahi ziren. Datu horrek erakusten du zer-nolako interesa eragin duen proiektuak Ermuko herritarren artean.
- Beste udalerrri eta eremu publiko batzuetan errepika daitezkeen proiektua da: enpresetan, jabeekideen komunitateetan, kirol-instalazioetan, etab.). Horrekin bat, gaur egun esperientzia errepikatu nahi duten beste udalerrri batzuetara hedatzeko ahalegina egiten ari gara.
- Enpresa-ikuspegitik, proiektuak aukera eman du Bexen cardio marka ezagutarazteko esparru ez-profesionalan (ospitaleak, larrialdi-zerbitzuak); gainera, negozio-lerro bat irekitzea ahalbidetu du, jarduerak zerbitzu bihurtuz. Bestalde, proiektuan baliaitutako R100 desfibrilagailuak nazioarteko RED DOT Design Award saria irabazi du 2021eko Produktuaren Diseinua kategorian.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak, Software-a, Zerbitzuak.
- Prozesua: Ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea, Marketina eta salmentak, Berrikuntzaren Kudeaketa.
- Negozio-eredua:

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa
- 2 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Juan Carlos Abascal (Ermuko alkatea)

«Harro gaude proiektu honetan parte hartzeaz; izan ere, prebentzioaren, zientziaren eta teknologiaren alde egiten du ekimenak, herritarrei babes-zerbitzua emateko».

Oxel Etxebarria (Bexen cardioko CEO)

«Proiektu honen azken helburua da istripu kardiorrespiratorioek gizartean izan dezaketen eragina minimizatzea; horretarako, gailuak ematen dira, eta boluntario-erkidego bati irekitako prestakuntza-plataforma bat baliatzen da».

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★